

## GALTZAILEAK

Behingoz EAEko hauteskundeon emaitzek ez dute zalantzarako biderik utzi irabazleak eta galtzaileak identifikatzean. Alderdien balorazioak balorazio (lotsarik gabe aldatu dituzte diskurtsoak maiatzaren 12tik 14ra), esaldi gordin eta bidegabe bezain egiazko bakar batean labur daitezke emaitzak: batzuek presoak eta iheslariak jarri dituzte, beste batzuek hildakoak, eta beste batzuek, berriz, botoak eraman dituzte. Edo bestela esanda, herri honetan daukagun gatazkaren ondorio zuzen eta lazgarrienak nozitzen ari diren indibiduen posizio politikoak irten dira galtzaile. Lezioa: askok uste zutenaren kontra, sufrimendua ez da elektoralki errentagarria.

Orain artekoan ez dugu galtzaileongandik gauza haundirik entzun, gizartea entzungor izan zaiela uste badute normala den bezala. Ez dut nik esango zein den gizartearen borondatea M-13ko emaitzen arabera. Botoak indibidualak dira, motibazio eta arrazoi indibidualak dituztenak, «gizartearen borondatea» bezalako terminoetan labur ez daitezkeenak. Gainera, badakigu alderdiek lau urteotan erabiliko dutena boto kopurua dela, eserleku kopurua, eta ez botoemaileen balizko motiboei buruzko hipotesi soziologiko egiaztagaitzak.

Gizartearen borondatea zeinahi izanda ere, euskal gatazka politikoaren behin betiko irtenbiderik ezean ere, hauteskundeotako galtzaileei, egunegun gatazkaren ondorio zuzenak jasaten dituzten pertsona guztiei eta euren senideei, aterabide baterako esfortzu sendoa zor die irabazleak, EAEko gehiengo elektorak, euskal gizarteak. Ez errukiagatik noski. Ezta hitzetik hortzera darabiltzaten askatasuna, demokrazia edo giza eskubide partzialen izenean ere; Justiziagatik baizik. Justiziazkoa da gatazkan hildakoen senideek, presoek, iheslariak eta euren senideek, sufritzen duten guztiek sufritzeari utz diezaioten konponbidea aurkitzea. *Zuzen eta bidezko* da.